KALAPUTXI

MUTRIKUKO HERRI ALDIZKARIXA 2002ko urria - 11 zkia.



LEHEN ETORRI ZIREN ETA GAUR EGUN ERE BADATOZ

HERRIKO KIROL TALDEAK MARTXAN

P.Mª ARREITUNANDIA

GRABATZAILE UNIBERTSALA

mutrikuko tabernariak



FRONTOI TABERNA
BADI BODEGOIA
GALDONA
TXOKO ● AHORBA

KARDALA
MIJOA JATETXEA
ZELAIETA JATETXEA
KALBAIXO JATETXEA
GOITIKBEHERA

LORETXU ● ESPARBELA ● TIRA-BIRA ● ATILATXO ● ARANZUBI ● ZUBIARAM
KAI JATETXEA ● BATZOKI ● BARE-BARE ● AMETZA ● SAN JUAN JATETXEA
JARRI-TOKI JATETXEA ● BAR PUERTO TABERNA ● KOFRADI ZAHAR ● ZUBIXA

OPEL

Txirritxa Autoak



HIL HONETAKO ESKAINTZA

GALGEN DOAKO AZTERKETA

MARKAKO KUBIERTAK
24 eurotik aurrera.
OPELek merkataratutakoak

Helbideak: Gardotza Pol. Ind., z/g — 48710 BERRIATUA — Tel. 94 683 26 00
Mijoa Pol. Ind., z/g — 20830 MUTRIKU — Tel. 943 60 41 28



Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
Erdiko kale, 4 behea
20830 MUTRIKU

Telefonoa: 943 60 34 68
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko udala
Tirada: 1.900 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

Mutrikuko udalak | Gipuzkoako Foru Aldundia | Eusko Jaurlaritza

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzearren

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

aurkibidea

Aurkibidia 3
Informaziua 4
Zeuk esan 5
Puri-purixan 6
Bi hitzetan 9
Lan giruan 11
Auzoz auzo 12
Komikixa 12
Kale inkestia 13
Kalaputxik urtebete 14
Karenka 16
Kirola 18
Gizatia 20
Kulturia 21
Euskeria 22
Jolasen txokua 23
Zorion agurrak - Olgatzen 24
Argazki zaharrak 25
Agenda 26

Mutrikun sortutako KALAPUTXI herri-aldizkarixaren hegaldiak herriaren mugak gainditu ditu eta badoa, badoa irakurleok zabaldu dituzuen bideetan barrena. Dagoeneko, lehenengo urtea beteta, heldu da Azpeitira eta Getxora eta Bartzelonara eta Tarrassara eta Cadiz urrun hartara eta... eta laster zuk nahi duzun tokira helduko da.

BIDALKETA ESKATZEN DUENA

Izen-abizenak: .....
Helbidea: .....
Posta kodea:..... Herria: .....
Telefonoa: .....

KALAPUTXI JASOKO DUENA

Izen-abizenak: .....
Helbidea: .....
Posta kodea:..... Herria:.....
Herrialdea: .....

TARIFAK(4 hilabeterako)**:** Estatura: 4.50 euro Europara: 11.60 euro Beste herrialdeetara: 19 euro
Dagokion diru-kopurua beheko kontu korrentean sartu **zeure izenean** eta txartel honekin batera utzi gure buzoian.
KUTXA k/k zenb.: 2101 0056 01 0123564866

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia (Osakidetza)	943 60 43 00
DYA Mutriku	943 60 33 17
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Odol emaleen taldea	943 60 39 30
Javier Otxagabia botika	943 19 50 26
Lon Apraiz botika	943 60 32 50

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaletxea	943 60 32 44
Turismo bulegoa	943 60 33 78
Posta zerbitzua	943 60 30 44
Bake epaitegia	943 19 50 81

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola	943 60 36 75
San Miguel ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 36 27
Udal euskaltegia	943 60 30 94
Aek	943 19 23 47

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua	943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza	943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza	943 60 38 71

ZEBITZUAK

Taxi geltokia	943 60 35 11
Pesa	900 10 12 10
Eusko Trenbideak	902 54 32 10
Loiuko aireportua	905 50 50 05
Hondarribiako aireportua	943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia	943 60 41 82
Kiroldegia	943 60 31 75

Autobusak 2003ko ekainaren 30era arteko ordutegiak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik Astegunak 7:00 / 8:20 (1)./ 10:00 / 13:30 / 18:30 (1) / 19:30 (2)
(1) astelehenetik barixakura (2) zapatuetan
Jai egunak 10:00 / 16:00 / 19:30

Donostiatik Astegunak 8:00 / 11:30 / 13:00 (1) / 14:30 (1) / 17:30 / 20:30
Jai egunak 11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

Mutrikutik Astegunak 7:20 / 8:20 / 14:20 / 17:20
Jai egunak 8:20 / 14:20 / 19:20

Bilbotik Astegunak 9:00 (1) / 10:30 (2) / 12:30 / 17:30 / 19:30
1) astelehenetik barixakura 2) zapatuetan
Jai egunak 10:30 / 17:30 / 19:30 / 22:00

MUTRIKU – MENDARO – MUTRIKU

Mutrikutik Astegunak 8:05 / 9:45 / 11:45 / 13:25
Mendarotik Astegunak 9:20 / 11:20 / 13:00

Trenak

DEBA – DONOSTIA – DEBA		DEBA – BILBO – DEBA	
Debatik	6:44-7:44-…-21:44	**Debatik**	6:43 -7:43 -…-20:43
Donostiatik	5:47-6:47-…-20:47	**Bilbotik**	6:00 -7:00 -…-20:00
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira		Jai egunetan 8:43etan hasiko dira	

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik	6:43 / 7:43 / … / 21:43	Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Eibartik	6:13 / 7:13 / … / 21:13	Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako Botikak (Mutriku – Deba)

URRIA	
21etik 27ra	**Javier Otxagabia**
28tik 31ra	Portillo

AZAROA	
1etik 3ra	Portillo (zapatu goizean, **Lon Apraiz**)
4tik 10era	**Lon Apraiz**
11tik 17ra	Barrera (zapatu goizean, **Javier Otxagabia**)
18tik 24ra	**Javier Otxagabia**
25etik 30era	Portillo (zapatu goizean, **Lon Apraiz**)



aparra
JANTZIAK - PITXIAK
Erdiko-kale, 29
Tfno.: 943 60 45 94
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)



Errespetu eskaria

Alaba gaiso mentala duten gurasoak gara eta Kalaputxiren tarte honetaz nahi dugu baliatu ondokoa agertzeko: Eskolan neska normala eta zenbait arlotan oso trebea zena, klaseko mutil batzuek amargatu eta matxakatu egin zuten orain dala 18 urte bai. Ondorioz, gaisotu egin zuten eta harrezkero ez du bururik altxatu. Gaur egunian ere, ezin du kalera lasai irten, gazte batzuek burlak egiten dizkiotelako behin eta berriz. Horren aurrean, zer egin?

Guk lerro hauen bitartez gazteen gurasoei eskatu nahi diegu errespetua irakasteko seme-alabei eta, denak errespetatu behar badira ere, problemak dauzkatenak oraindik eta gehiago errespetatzeko. Soluzioa zein da, ba, norberan herritik irten eta beste herri batera joatea bizitzea?

Mutriku herri txikia da eta denok ezagutzen gara. Elkarbizitza errazago egiten lagundu beharko genuke danok.

Mª CONCHI OIANGUREN ETA MARTIN ARRIZABALAGA

JOSÉ AGUSTÍN ELEZGARAI FLORES ALKATEARI, ERANTZUNA

Mutrikuko portu berriaren proiektua dela eta, Alkatetzatik egin dituzun aitorpenengatik, neu ere mutrikuarra naizenez eta itsasoko giroa piskat ezagutu izan dudanez, zure ondorengo hiru puntuei erantzun nahi nieke.

1. Hobetu Leike taldea akusatzen duzu esanaz *"Kea bakarrik saltzen ari dela"*. **Gezurra.**
   Bai talde hori eta bai beste hainbat jende, beti egon gara bai **babes moila eta bai errepidearen soluzioaren alde**. Aldapa gehiago edo gutxiagorekin, altura gehiago edo gutxiagorekin, baina **beti "alde".** Ez duzu ez panfleto asko ikusi ez irakurri! Zergatik ote da?
2. Diozu *"Horrek guztiak desorientazioa sortu duela batez ere herriko eta kanpoko gazteriaren artean"*. **Gezurra berriro**.
   Mesedez, utzi hipokresia alde batera, zeren eta zu orain Alkatea bazara ere, urte askotan Kofradiako idazkaria izan zara, eta zure begiekin ikusi duzu, Mutrikuko eta kanpoko gazteek, nola poliki poliki bizkarra ematen joan diren itsasoari. Beraz ez dut uste Mutrikuko eta kanpoko gazteek ez orientazio eta ez kearen baharrik dutenik egoera honetaz jabetzeko.

3.- Zementada hori " *oraindik aztergarria eta negoziagarria omen da"*.

- Zure alderdiak 4 faseak bere osotasunean onartzen baditu, esan niri ea merkatal ontziek nola eta non deskargatu behar dituzten eta ondoren non utzi, txatarra, egur eta auskalo zer material.
- Mollaberritik Danborrera zementoz estali ezkero, izango al genuke mutrikuarrok bertan zehar paseatzera joateko eskubiderik? Ikusi bestela, Pasaia, Bilbo, etabar.

Bukatzeko: beste eginkizun askotan txalotzekoa izan bazara ere, hemen uste dut nortasun gutxirekin jokatzen ari zarela. Hona hemen nire ustez hiru arrazoi agian zuen portua baino haundiagoak, gai honetan prudentziaz jokatzeko:

- Itsasoko ekonomia etengabe behera doa: Ikusi besterik ez dago harrapaketen kopurua, prezioak, e.a.
- Jendeak eta batez ere gazteek, ez dute itsasora joaterik entzun ere egin nahi. Ikusi bestela puntakoak diren herrietan, nolako arazoak dauzkaten itsasontziak jendez osatzeko (Orio, Getaria, Ondarroa, e.a.)
- Bizi kalitatea: gai honetaz, ez dut uste hemen gauza asko esan behar denik ere. Itsasora joan astebete bat eta kitto.

Besterik gabe, agur bero bat.
2002ko urriaren 14an

JOSE LUIS LASARTE ARREITUNANDIA

Orri hau beti egongo da zabalik zeozer esateko daukazuen mutrikuar guztiontzat. Artikuluak izenpetuta ekarri beharko dira, nahiz izanez gero, gaitzizena erabil daiteke aldizkariari nor den adierazita.

Utzi esateko duzuna Erdiko kale, 4 - beheko buzoian edo kalaputxi@topagunea.com helbidean.

gutunak

Lehen etorr

Migratzearen fenomenoa betidanik egon da gizakiari lotuta eta mutrikuarrok ere bizi izan dugu harako eta honako hori. Atzera begiratzen badugu, seguru gure zaharren artean bat edo beste aurkituko dugula herritik irten eta, arrazoi batengatik edo besterengatik, beste herrialde batera joan behar izan zuena bizitzera. Gaur egun ere, mugimendu hori bizi-bizi ikus dezakegu gugandik oso gertu, gure herrira datozen kanpotarrak asko baitira eta kanpora joaten diren mutrikuarrak ere dexente. Jarraian, gure herrira etorritakoez mintzatuko gara, Mutrikuko aurtengo errtoldako datuetan oinarrituta.

Galizia, Extremadura, Andaluzia... historian zehar Mutrikura heldutako kanpotarrak herrialde horietatik eta beste batzuetatik etorri izan dira, lehenengo arrantza eta gero lantegietara, nagusiki. Denboraren joanean, etorkinen jatorria zabaldu egin da eta gaur egun txinatarrik ere badago erroldatuta gure herrian.

Gerra aurretik Mutrikura ailegatutakoak nagusiki gipuzkoarrak eta bizkaitarrak ziren eta horiekin batera galiziar batzuk. Lehenengo italiarrak ere orduantxe hasi ziren gurera ailegatzen.

Gerra ostean, 40-50eko hamarkadetan, Galiziarrak izan ziren nagusi erbestetik etorritakoen artean. Aurreneko extremeñoak ere garai honetan etorri ziren.

60ko hamarkadan, aurreko urteetako joerari eutsita, galiziarrek gure herrira etortzen jarraitu zuten, baina nabarmenena Extremaduratik etorritako jende kopuru handia izan zen. Aipagarria da herri jakin batzuetako zenbat jende etorri zen garai hartan. Adibidez, gaur Mutrikun bizi diren 32 lagun Zalameatik etorritakoak dira, ordutik hona hil direnez gain.

Mutrikun berrogeita bi urte egin dituen horietako batek adierazi digunez, *"gure sorlekuan lanik ez eta herriko batek irteten zuen abenturan. Gauzak ondo zihoazela esaten zuenean, herriko beste jendea ere animatu eta hark erakutsitako bidetik abiatzen zen. Horrelaxe etorri ginen geu ere"*.

Lanak, lan ezak eramaten zuen jendea norbere herria utzi eta bizimodu berri bati aurre egitera. Ohitura berriak, eguraldi berria... bizitza ia-ia huts-hutsetik abiatu beharra.

Aberastasuna zegoen tokira joan beharra zegoen eta garai hartan Euskal Herrian lana soberan zegoen.

"Izaera, ohitura eta hizkuntza ezberdineko herri batera etorrita, pentsatzekoa zen gauzak ez zirela errazak izango, eta izan ere halaxe izan zen. Hasierako urte latz haiek joan ziren, baina, eta denborarekin oso ondo herritartu ginela esan daiteke" adierazi digu aitona extremeñoak eta horren adibide egoki ditugu urteetan zehar sortutako bikote mistoak, kanpotarrak eta herritarrak osatuak.

Hurrengo hamarkadan, 70ekoan, Gipuzkoako eta Bizkaiko herrietatik etorritako jendearen ostean, Andaluziatik etorritakoek osatutako multzoa aipatu behar dugu, gehienak Huelvatik etorritakoak, Ayamontetik, zehazki.

80ko hamarkadan gauzak aldatzen hasi ziren eta estatu espainiarretik jendeak ailegatzen jarraitzen bazuen ere, ez zen etorri jende multzo handirik. Garai honetan etorrikoak dira gaur egun herrian bizi diren lehenengo atzerritarrak, Portugaldik etorriak.

50-60 hamarkadan Mutrikura etorritako gehienak Galizia eta Extremadurakoak ziren

"Ailegatu berritan, latza zen izaera, ohitu eta hizkuntza berriaren ondoan bizitzea"

gaur egun ere

EBANIZTERIA
OKILA
AROZTEGIA.S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Fax: 943 60 31 03

kutxa
zuri esker

ri ziren eta badatoz

90eko hamarkadan, bizitza guztian ohizkoa izan den mugimendu migratorioari jarraiki, Gipuzkoatik eta Bizkaitik, batez ere inguruko herrietatik, etorritako jendeak osatu zuen multzorik handiena, 436 lagun etorri baitziren. Estatutik gero eta jende gutxiago hasi zen etortzen eta atzerritarrak, berriz, gero eta gehiago. Urte horietan etorri eta gaur arte gurean daudenak dozena bat lagun dira, Colombia, Kuba, Maroko, Portugal eta Dominikar Errepublikatik etorriak. Esan behar, baita ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako herrietatik etorri diren atzerritarrak dexente izan direla.

Mende berriarekin batera, 80-90eko hamarkadetan hasitako joera hori sendotu egin da eta laster normal-normala egingo zaigu kalean zehar joan eta Alemania, Rumania, Argentina, Nigeria, Senegal, Bulgaria, Irlanda, Kuba edota Txina herrialde urrun haietatik gureraino heldutako atzerritar horietako batekin topatzea, dagoeneko normala egiten ez bazaigu.

Etorkizunean gero eta atzerritar gehiago helduko zaigu herrira, garai batean Galizatik edo Extremadura edo Andaluziatik zetozen bezala, baina etorriko direnak afrikarrak, amerikarrak edo auskalo nondarrak izango diren. Har ditzagun, bada, gu eta gureak hartzea nahiko genukeen moduan.

ALEJANDRO ETA CAROLE: GARAI BERRIKO ETORKIN GAZTEAK



Udal euskaltegiraino hurbildu eta bertan aurkitu ditugu Alejandro eta Carole, Argentinatik eta Frantziatik etorritako bi gazteak, euskara ikasten

Mallorcan ezagutu zituen Jesus Mª Arreitunandiak eta Jon Eizagirrek animatuta etorri zen Mutrikura Alejandro, 2001ean, itxasoan lan egitera. Itxasoan 9 hilabete egin ondoren, gaur egun Badi bodegoian egiten du lan.

Hemen lana eta etxea duenez, gustura gelditukо litzateke Euskal Herrian bizitzen, primerako tokia delako. Oraingoz etxera itzultzeko asmorik ez du eta, agian, inoiz ez da bueltatuko. Mutrikuarrei buruz, dio oso ondo hartu zutela, batez ere lanera zetorrelako, inork egin nahi ez duen lanera; bestalde, harrigarria egiten zaio jendearen dena jakin behar hori. Integratuta setitzen da eta euskara ikastea integratzeko modu ona dela uste du.

Carolek 4 urte daramatza Mutrikun bizitzen, Irlandan ikasi eta gero etorrita. Gaur egun, ELC akademian dihardu klaseak ematen. Mendia eta itsasoa zituen leku baten bila zebiltzala, gurera 6 hilabeterako ailegatu eta hementxe bizi dira harrez gero.

Etxera bueltatzeko asmorik ez duen frantziar neska honen ustez, bertako jendea oso desberdina iruditu zitzaion. Asko kostatu zitzaien berari eta bikoteari adin bereko guraso gazteak aurkitzea, besteak beste, euskaraz eta gazteleraz ez zekitelako. Orain lagun asko dute eta 4 urteko semeak ere mutrikuarra dela dio kanpora joaten direnean.

"Andaluziarrek 70eko hamarkadan hartu zuten Mutrikurako bidea. Betidanik, gurera etorritako multzo handiena bizkaitarrek eta gipuzkoarrek osatu dute.



ZER DIRA TOLENTINUAK

Euskal Herrixan urteko egun seiñalatu batzutan, San Juan edo Gabon Gabaz adibidez, bedar mota ezberdiñak eta ogixa bedeinkatzeko ohitxuria do, gaitzak uxatzeko.

Mutrikun San Nicolas de Tolentino egunian ere badakau beste ohitxura bat. Egun hortako, irailak 10, Komenduko agustindar monjak Tolentinuak eitxen ditxue. Honek legamiñik gabeko opiltxuak dia, gaiñeko aldian aitxatutako santuaren irudixakin.

Fedia dakana maiñela bada, itsasora eruan eta eguraldi txarra badakar, uretara botako deu ekaitzetik salbu egoteko. Kotxe gidarixak istripurik ez eukitzeko eruaten ditxue, ikasliak azterketak ondo eitxeko eta gaixuak jan eitxen ditxue gitxio sufritzeko.

Monjak santuaren irudixa ipintzen dixue opiltxoari Nikolas agustindar fraile mirarigilea zalako eta pobrien alde egiten zoalako lan, jatekorik ez zakanari bere ogixa emanaz e.a.

Ez dakigu noiztik datorren ohitxura hau, baiña seguru asko San Juan eta Gabonetan eitxen dian errituen sasoikua izango da.



Aurtengorako ere Goizeko Izarra antzerki taldeak, antzezlan sorta ederra eskainiko du herritar guztion gozamenerako. Azaroaren 7an hasi eta 17 arte luzatuko da aurtengo edizioa eta bertan mota eta publiko ezberdinentzako ikuskizunak izango dira. Berezitasun moduan aipatu, "E-15 pabiloia" izeneko antzezlanarekin *Antzeko parezido* antzerki taldea Europan zehar ibili dela eta oraingoan Mutrikun ikusteko aukera izango dugula.

Bestalde emanaldi gehienak Zabiel Kultur Etxean izango dira, Kafe antzerkiak ezik hauek ohikoa den moduan herriko tabernetan antzeztuko baitira. Beraz, aukera paregabea daukagu antzerkiaz bustitzeko eta Mila fruitategian 6 eurotan salduko diren bonoak eskuratzeko! Egitarauaren berri jakin nahi izanez gero, azken orriko agenda ikusi.

ANTZERKIAZ BLAI 2002



MRTRIKUKO VII. HERRI KROSSA



Urriaren 6xan Mutrikuko Herri Krosan VII. ediziua egin zan, eguraldi eta giro dotorean. Ia 200 lagun batu zian Txoko aurreko hasierako lerruan hasi, Casa Campon buelta hartu eta erdiko kalian gora Goiko plazan amaitzeko. Ume dexente ere animatu zan karreran parte hartzea. Irabazlea, mutiletan, Gaztelutik etorritako Ramontxu Otegi izan zen 32' eta 16"ko denborarekin. Nesketan, helmugara ailegatu zan lehenengua Alicia Romero durangarra izan zen, 40' eta 04"ko denborarekin.

Antolakuntzan jardun deuenek eskerrak eman nahi dixue beren ahalegiñakin proba hau etxia posible ein deuen kolaboratzaile guztixai, euren laguntzaik gabe ez zan-eta posible izango proba hau antolatzia.

DEBA ZUBIKO LANAK



Udaletxera joan gara eta Hirigintzako teknikariek adierazi digutenez, Foru Aldundiaren asmoa da datorren hilean, azaroan, Debako zubian lanean hastea, gogortu eta behar den moduan ipintzeko. Zubiko ibilbidea moztu egingo da kotxeentzat eta litekeena da oinezkoentzat ere ixtea. Obra hauek aprobetxatuta, gasarentzat, urarentzat eta saneamenduarentzako bide berriak ipini nahi dira.

Beraz, irakurle, argi ibili eta jakin laster Galbaixoko buelta egin beharko dugula Deba aldera edo Eibar aldera egin nahi badugu.

GASA HELDU DA

GAS EUSKADIk adjudikatuta, CIG enpresa hasia da gas-bidea Kiroldegiaren atzetik herrirantz ekartzen. Gabonetarako *Etxe Txiki* aurreko etxe berriko eta Gaztañeta kaleko etxeetako atarietaraino eraman nahi dute gas-bidea. Datorren urtean, berriz, Azkian behera herri barrurantz abiatzekoak dira. Gure orrietan jakingo duzue horren berri.





EGAÑAKO FRONTOIA

Kalaputxiren iraileko alean gure irakurle batek gutuna idatzi zuen Egañaneko frontoia behar den moduan ipintzeko garai zela esanaz. Gutuna kaleratu baino egun batzuk lehenago lanean hasi ziren eta dagoeneko Lasturko marmolezko frontisa eginda dago eta ormak raseatuta ere bai. Pintatze lanak falta dira eta horiek urriaren azkenetan hasi eta azaroan egitekoak dira. Abendurako, hortaz, frontoi berrian izerdi piskat ateratzeko aukera berria izango dute herriko pilotazaleek.

www.festak.com

Interneten sarian ibiltzeko ohitxuria dakaenak aukera politxa dakae Galbaixotako jaixetan eta aurtengo Herri krosian atera zitxuen argazki pillua ikusteko. Hori bai, pazientzia haundixa biharko deue, orrialdia oso poliki dabil da. Jarraitxu biharreko bidia, hasierako presentazio-pantailaren ostian: *herrietako festetako argazkiak* atalean klik egin eta gero *Gipuzkoan* eta *Mutriku*n.



mutrikuberri s.a.
sustapena eta garapena

APARKALEKU ESKAINTZA
(EGAÑA)

Kontzesioan
40 urterako
7.813 euro + BEZ

Alogeran
Urtebeteka
50 euro + BEZ / hilean

Kaia, z/g 20830 Mutriku Tel.: 943 60 32 04 e-posta: julen@mutrikuberri.com



BERDEL JAIAREN BIDEOA

Murtikuko BIARKO ikus-entzunezkoen enpresa sortu-berriak BERDEL JAIAREN bideoa kaleratu du Udaletxearen laguntzaz. Bertan, 2002-ko Berdel Jaia zela eta, Apirila eta Maiatza bitartean antolaturiko ekintza ezberdinak azaltzen dira, parte hartu zuen jendeaz gain, bideoklip, elkarrizketa eta guzti. Kofradi berriko sutearen irudi triste baina ikusgarrietatik hasi, eta Mirualtz pilotalekuan ospatutako bazkari herrikoian bukatzen den historio bikí bat da, baina oso bailotsua Mutrikuarrontzako.
Bideo hau eskuratu nahi duenak 10 eurotan lor dezake Andonegi Jantzidendan.

EGAÑANEKO APARKALEKUAK

Herrian dagoen aparkamendu egoera larria hobetu nahian, Egañaneko aparkalekuan 72 aparkaleku eskainiko ditu Udalak.

Interesa dutenek 40 urterako kontsezioaren bidez eskura dezakete garaje plaza bat herriaren erdierdian 7.813 euroren truke (1.300.000 pzta.). Denbora tarte motzeragoko konpromisoa nahi dutenentzat, berriz, badago bigarren aukera bat: Hileroko alokairua, gutxieneko epea urtebetekoa izanik eta hileroko kostua 50 eurokoa (8.319 pzta.). Kasu bietan BEZ gehitu beharko da

Garaje plaza bat hartzeko interesa dutenek lehentasunezko kreditua lortu dezaten, bankuekin gestio batzuk egin dira.

Informazio gehiago nahi duenak, dei dezala Mutrikuberri S.A.ra, 943603204 telefonora.

MARMITXAKO ERREZETA

Galbaixo jaixetan egindako marmitxako lehiaketan 1. saria irabazi zuen Jabier Mendigurenengana hurbildu gara arrakasta izandako bere errezetaren berri izatera. Gustura hartu gaitu. Hona hemen Jabierren esanetan sekreturik ez duen errezeta:

OSAGAIAK:
Patata, atuna, piper berdeak, kipula, ura eta gatza.

1. Atuna garbitu eta hezurra ur gatzituzan egosten ipini.
2. Atuna tatotu eta gatza eman.
3. Patatak zuritu eta apurtuz zatitu.
4. Piper berdeak garbitu eta zatitu. Patatekin batera gorde.
5. Kipula txikitu eta marroi kolorea hartu arte gorritu. Marmitxakoaren gakoa kipulan dago.
6. Kipula patata eta piperretara bota. Kipula desagertu eta marroi kolorea hartu arte erreogatu. Hezurra egosteko erabilitako ura bota gainera patatak estali arte.
7. Patatak ia-ia eginda daudenean, atun tatoak bota eta 10 minututan egosten utzi. Gatz-puntua hartu...

...eta on dagizuela!

Jabier Mendiguren



UDA SASOIA GURE KANPINETAN

Mutrikun dauden lau kanpinak 1967tik aurrera irekitakoak dira, inguru paregabean kokatuta dauden baserrietan. Denok dakigun bezala Saturraran, Galdona, Santa Elena eta Aritzeta dira kanpin hauek eta laurak daude Euskadiko Kanpinen Federazioaren barruan. Urteko sasoirik onena uda izaten denez, aurtengoa nola joan zaien jakin nahi izan dugu.

Aipatu behar da Kanpin guztiek ez dutela era berean lan egiten. Santa Elena, Galdona eta Aritzeta urte osoan zabalik daude eta Saturraran ekainaren 1etik irailaren 30 arte.

Galdona eta Santa Elenan urte guztian finko dauden karabanekin lan egiten dute batez ere, kanpindendak ere izaten dituzten arren. Karabanak dituztenak inguruko familiak dira: eibartarrak, gasteiztarrak, iruñarrak,... Hauek aurten ere etorri dira, baina dendentzako lekua soberan izan dute.

Aritzeta kanpinean atzerritarrekin egiten dute lan %80-85ean, aurten hemengo inor etorri ez den egunak ere egon direlarik. Udaberrian amerikarrak eta kanadiarrak etorri dira, beste urteetan ez bezala. Jende asko kanpinean egun batzuk egin eta bitartean Donostia, Bilbo, Gasteiz eta inguruak ezagutzera etortzen da.

Saturraranera uztailean urtero Eibar, Zumarraga, Bilbo eta ingurutik etortzen den jendea izan dute gehiena, baina iaz baino askoz gutxiago. Hala ere, azken urteetan etorri den jendea asko kexatzen da errekak botatzen duen kiratsagatik eta hondartzaraino daraman zikinagatik.

Aurten jende gutxiago etorri da eta egun gutxiagotarako



Orokorrean esan daiteke Mutrikuko kanpinetara etortzen direnek lasaitasuna eskertzen dutela, umeak libertatean ibili eta inguruko mendi eta hondartzez gozatzeko aukera dutelako. Uda honetan, ordea, egin duen eguraldiak ez du horretan asko lagundu eta ondorioz, beste urteekin konparatuz jende gutxiago etorri da eta egun gutxiagotarako. Joan-etorri asko, egun bat edo bi egin eta joan egin den jendea izan da, beraz, aurtengoa. Hala ere, gehienak pozik agertu dira, egin duen eguraldiarekin ezin delako gehiago eskatu. Atzerritik etorri direnen jatorria ere aldatu egin da, aurreko urteetan baino frantses gehiago eta holandar eta alemaniar gutxiago.

Bukatzeko esan, askoz ere gusturago eta hobeto lan egingo luketela alde batetik, Foru Aldundiak kanpina dagoela esaten duen kartela, km 1etik gorako distantzian ipintzen lagako balie. Eta bestetik, autokarabana askok kanpina euron ur zikinaren depositoa hustu eta ur garbia betetzeko bakarrik erabiliko ez balute, gero eta gehiago gertatzen dena. Ea ba, datozen urteetan arazo hauek konpontzen joaten diren.

Masaje
Terapeuta Deportivo
JOAQUIN ALKORTA
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

Sold Diesel VOLVO PENTA YANMAR
DOISTU
ITXASOKO MOTORREN ALDAGAIAK eta KONPONKETAK
Nasa Kalea, 5 - 20830 MUTRIKU - GIPUZKOA
Tfnoa: 943 605872 / Mugikorra: 659 670233 / Faxa:943 605078

Galdoamendítik

Azkar eta ondo usoak hegan!

Baserriko lanak goizean goiz hasi eta iluntzean berandu bukatu ohi dira, baina ez digu inork ukatuko alde onak ere badituenik. Horietako bat usoak pasatzen diren egunetan, inori baimenik eskatu beharrik eza da.

Pilarika egunean zabaldu zen beda eta harrezkero arreta bereziarekin begiratzen dute zerura ehiztariek. Ordurako, postuak eta inguruak berritu eta txukundu dituzte eta, jakina, kartutxo mordoska erosi ere bai; badaezpada! Ehiztari kuadrilla batek hamar mila erosi ote dituen ere entzun dugu. Auskalo!

Mutrikun ez dago Federakuntzak antolatutako uso posturik eta ez da zozketarik egiten. Hemen usadioak agintzen du eta usotan ibiltzen direnek elkar ezagutzen dutenez, bakoitzak besteren postua errespetatzen du eta nahiko ondo konpontzen dira.

Galduamendixan , ondoen, Elorreta gainetik pasatzen da usoa; osterantzean, itsasotik eta zabal. Usoa gero eta gehiago hasi da itsasotik pasatzen, ur gainetik. Badirudi argitzen hasi direla eta badakitela lehorrean tiroak jasotzen dituztela.

Ekialdetik hegoaldera pasatzen dira, eguraldi epelen bila. Beda zabaltzen denean, udazkenean, postutik nahiz lurretik bota daitezke usoak eta kalandriatik gorako edozein hegazti: bidiarrua, zozoa, gaztalazozoa, oilagorrak (gauez galerazita) eta horrelakoak, baina txikiagorik ez.

Haize puskatekin-eta usotako lekurik onenak Aldabe, Elorreta eta Kalbaixo aldea dira. Haizerik ez dabilenean, zenbat eta puntu altuagoa orduan eta hobe. Haize handiagoarekin sakonak eta itsas bazterra dira hobeak. Dena den, hegohaize epela behar da, ipar denborarekin barrutik pasatzen dira eta.

Kartutxorik onenak 4tik 6ra bitartekoak dira, baina orain 0 eta 00 eta baita posta ere modan edo jarri dituzte. Baina ondo-ondo apuntatuta ere, hogeitik batik ere ez omen da hiltzen. Ea ba haizea lagun dugun!



komikixa — gotzon santander



Zer esango ziozuke *urtebete bete doan* Kalaputxiri?



Kepa Lizardi, 38 urte, maiñela

Herrixan lelengo esperientzia izateko, ondo do. Denporiakin mejoratuko da gauza danak bezela. Nik behintzat gustora hartzen det.



Benigno Arrizabalaga, 68 urte, jubilatua

Ondo do deportia, lehengo gauza zaharrak… Herriko mobimientuan berri ta emateko gauza ona iruditzen zat. Ez det uste ize falta doanik. Herrixai informazio emateko bezela ondo.



German Collazo, 65 urte, jubilatua

Kultura zabaltzeko tresna gisa, oso ondo dago. Faltan beti egoten dira gauzak faltan, baina hori denean dago. Jendeak, behintzat, ondo hartzen du eta irakurri ere irakurtzen du, nire inguruan behintzat.



Josune Fernandez, 33 urte, langilia

Lehenengo eta behin, zorionak! Orokorrean, oso ondo iruditzen zait aldizkaria. Denborapasa moduan gauza polita da, jendeari ilusioa egiten dio bere burua bertan ikusteak… Ondo dago herrian horrelako bat edukitzea.



Leire Lezertua, 26 urte, langilia

Toki batzuetan berandu jasotzen da, baina bueno, behintzat aillatzen da. Esango nioke holaixe segitzeko, informaziua ematen eta argazki zahar gehixo sartzia ere ondo eongo litzake.



Luxiano Hernandez, 42 urte, langilia

Letzen detena gustatzen zat. Herri mailako informaziuan da ondo do. Batzuetan informazio gehixo eta garbixo eongo balitz… baina aitzakirik ez daka, ondo, ondo!



AUPA GU koadrilakuak, 13 urtekuak, ikasliak

Jendian argazkixak ikustia politxa da. Igual mutil guapo gehixo erten ezkeo, hobeto. Musika kontu gehixo atea biharko litzake, gaurko taldiak, Ken 7…

KALAPUTXI

LUPAZ BEGIRATU!

Lan hau egiteko agindu zidatenean zurikeriatan ez ibiltzeko esan zidaten baina ez da erraza aldizkari atsegina irakurri ondoren, lupaz bigarren beigrada ematea.

Hementxe doa bada, nire lupak ikusitakoa.

Ardoa denbora joan ahala ondu egiten **omen** da, orduan, beti ez da ontzen. Ardoaren inguruan zalantza sortzen du esaera honek, denborarekin ardoa ondu edo txartu egiten dela esaten du eta.

Ardoarekin zalantzan banago ere KALAPUTXIrekin ez dut batere zalantzarik, eta batere dudarik gabe esaten dut: "denborarekin KALAPUTXI ondu egin da".

Hasierako espazio desorekak berdindu egin dira. Aldizkaria hasi berria zen garaian, gai batzuei orrialde gehiegi eskeintzen zitzaien beste gai batzuen kaltetan. Denbora aurrera joan ahala gai gehiago lantzen dira aldizkari bakoitzean eta espazioa berdinago banatzen da interesgarri izan daitezkeen gaietan.

Estetikari begiratuz, berriz, azaletik hasita, gero eta txukunagoa da KALAPUTXI: orijinala dela esango nuke. Hala ere, batzutan, orijinaltasunak irakurgarritasuna oztopatzen du (adibidea KALAPUTXI 8. zenbakian. 16-17 orrialdeetan). 16. orrialdean letren azpian doan tramak (M.F.T.ren ikurra) ez du irakurketa oztopatzen; bai, ordea, 17. orrialdean arte tailerraren artikulua ilustratzeko egindako tramak.

Orokorrean, aldizkariari errepasoa eginaz, gaurkotasuna duten gaiak lantzen dira herritarrak ezagutzeko eta gertatutako gorabeherez informatzeko era-erakoak. Zorionak emateko tarteak eta argazki zaharrek arrakasta handia dute eta, KALAPUTXI jaso ondorengo egunetan, zeresan franko ematen dute. Jolasen txokoa oso ondo etorri zait ahaztutako jolasak gogoratzeko. Dena den, eta ezer baztertu gabe, niri BI HITZETAN tartea gustatzen zait, denbora gutxian kontu asko jakiten dudalako. Eta orokortasuna biribiltzeko galderatxo bat: puri-purian dagoenak betetzen al du PURI-PURIAN atala?

Jostorratzak baino hariak luzeagoa izan behar du beti eta ez egin kasurik nire orratzaren zistadei.

Oso ondo ari zarete eta eutsi goiari!

Zorionak eta urte askotako KALAPUTXI!

Arantza Ugarte



EGITEN DUTENEI, OHORE!

"Kalaputxi" aldizkariak lehen urtea bete duela eta, halako hausnarketa orri bat eskatu didate alderdi "onak" eta "txarrak" aipatuz, baina guzti hori baino lehen bada besterik, eta hau aldizkaria egiten duten guztiekiko errekonozimendua litzateke, "egiten dutenei ohore!" beraz lehendabizi.

Mutrikuk badu izaera propio bat, herri nortasun propioa, eta aldizkaria ere propioa dela esango nuke, baditu beste hainbat aldizkaritan azaltzen diren pasarteak, baina baditu propioak ere, esate baterako auzoz auzo burutzen duten kronika, oso gustagarria egiten zait.

Nolanahi "pasatako urek errotarik mugitzen ez dutenez" gerora begira bizpahiru apunte eman nahi nituzke; euskara komunikatzeko bada eta komunikazio hori hedatu behar baldin bada, kultur mundutik at zabaldu beharko litzatekeela deritzot, azken finean eduki berrien bila abiatzea; enpresa mundua, hezkuntza mundua, kanpoan diren mutrikuarrak, herriak dituen gune izkutuak, herrian ekoizten diren produktuak, elkartasun ekimenak, herritarrek burutzen dituzten ibilaldiak... guzti hauek era integratu batean noski, gogoan baitut oraindik Burgos-ko herri txiki batetako ezagun batzuek esan zidatena; "Hitz egiten dugun bitartean, ezagutu egingo gara; elkarrizketarik ez dagoen bitartean berriz, borrokatu!", denak horrela pentsatuko balute?

Baina guzti honen oinarrian herrimin gehiago beharko genuke guztiok, ez herrimin nostalgikoa, baizik eta herrimin eraikitzailea, geroari ateak zabalduko dizkiona, aldaketa garaian Mutrikuko aukera propioak ahalbideratuko lituzkeenak, baina horretarako norberaren ahalmenaz sinistu egin behar, baina nork sinesten du hemen denok "guraiza fabrikara" begira gaudenean?

Edukin faltagatik ez dadila izan, "Kalaputxi" aldizkariak urtea bete du, hainbat gai jorratu dituzte, baina pentsa ezazue zenbat gelditzen den oraindik, seinalea bizirik dagoen herri baten isla dela, naiz eta igande arratsaldetan besterik eman. "Guk egiten ez badugu, ez zaigu kanpoko inor egitera etorriko", Legazpik egin zuen halako hausnarketa eta begira emaitzak, Mutrikuk ere halakoren bat behar duela sinesten dut aldizkaria barne.

Alberto Gorritiberea





Ofizioa arte bih



Pedro Mª Arreitunandia, grabatzailea, eskopeta finen munduan kalitate onaren adierazgarri da bere izena. Grabatzaileen artean gorengo mailara iristea lortu du, nahiz eta berak zer ikasi beti dagoela esaten duen. Bere lanbidearekin gozatzen duen pertsona dela azkar somatzen zaio. Laneko 8 orduez aparte saio ederrak egiten ditu bere etxean, teilatupean moldatu duen tailertxoan. Aurrekaldean daukan leihotik itsasoa ikusten duelarik, orduak eta orduak ematen ditu bere lana eta mundua den ofizioan. Iritsi den mailara iristeko, begiratzen jakin, gogoa, superazioa eta asko gustatzea ezinbestekoa dela dio.

"Eibar inguruan akaso, bakarren bat egon leike maila hontan lan egiten duena"

Mutrikutik Eibarrera

Merzedaixuetan ikasten zuenean dibujatzea asko gustatzen zitzaion. Familiako osaba-izebak Eibarren bizi zirela ta, ofizio honen berri eman eta hala hasi zen Pedro Mª Arreitunandia. 14 urterekin, goizez grabatzaile ofizioa ikastera Luis Bergara *Kamiño*ren tailerrera joaten zen. Bertan **Gregorio Mugerza**k, izan duen irakaslerik onenak, erakutsi zion ofizioa eta arratsaldetan dibujo ikastera udaletxeko eskola sindikalera joaten zen, ***Markano***rekin ere urtetan aritu zen ikasten. Honela 16-17 urtekin enpresa batetatik lan eskaintza izan eta lanean hasi zen. Hemendik *Armas Garbi* enpresara pasatu zen, mundu mailan eskopeta fin egilerik onenetakoa zena eta dena. Bertan etengabe ikasten eta praktikatzen aritzen zen, beti hobetzeko grinarekin.

Behin, **Giovaneli** irakasle italiarra bisitan joan enpresara eta lanean oso ona zela ikusita, Italiara beste teknika batzuk ikastera joateko aukera eman zion 1983 urtean. Ilusioz beteta abiatu zen "*neretzat bigarren ezkon bidaia izan zen*" dio, eta bertatik pozez zoratzen etorri zen asko ikasi baitzuen egin zituen hiru hilabeteetan. Hala ere etxera itzuli zenean ikasten eta praktikatzen jarraitu zuen.

Lanbidean hobetzen eta haunditzen joan zen neurrian, ikasitakoarekin aspirazio berriak sortu zitzaizkion eta Elgoibarko *Kemen* enpresak bere asmoak gauzatzeko aukera eskaini zion: "*orduan hasi nintzen gogoa neukana egiten eta asko ikasi det*".

"Gregorio Mugerza eibartarrari eskertu nahiko nioke, inoiz eduki dudan dibujoko irakaslerik onena izan baita"

urtzen denean...



Mutrikutik mundura

Kemen enpresarekin mundu mailan erakustaldi ugari egin ditu Pedro Marik Australia, Ameriketa, Norvegia, Alemania, Portugal eta Espainian Bartzelona, Malaga eta Madrilen ere ibilia da. Toki guztietan egin ditu harreman onak eta oso ondo hartu izan dute beti. Berak harrotasunez dio mutrikuarra dela eta bere lanetan P.M. Arreitunandia sinatzen du, kanpotarrak ezin esanda ibiltzen badira ere.

Jende ospetsu askok dauka berak grabatutako eskopetak, besteak beste: Juan Carlos I Espainiako Erregea, Felipe Borbon Printzea, Jaime Marichalar Kondea , Bruneiko Sultana, Catar, Avelló ... Batzuk pertsonalki ezagutzeko aukera ere izan du.

"Espainiako Erregeari 12 eskopeta grabatu dizkiot"

"Beti pentsatu izan dut sorte haundiko pertsona naizela nire lana asko gustatzen zaidalako eta hori gaur egun ez da erreza lortzea"

Eskopeta hauen prezioa 4 milioi pezeta inguruan ibiltzen da, beraz edozeinen eskura ez dauden tresnak dira.

Grabatzen dituen marrazkien motiboak ezberdinak dira: animaliak, pertsonak, paisaiak... erosleak eskatzen dionaren gainean berak sormen lana gehitzen dio eta normalean oso gustora geratzen dira denak.

Eskopeta bakoitzarekin bataz beste 200 ordu egiten du lan, beti ere marrazkiaren zailtasunaren arabera.

Bere ofizioak beste aplikazio batzuk baditu ere, adibidez joierian, bera eskopeta finen arloan espezializatu da, gehien ezagutu eta gustatzen zaiona delako. Hala ere labanekin ere zerbait egin nahiko luke, baina horretarako astia atera behar!

"Egun batetan, tailerretik irten eta zahartzen naizenean, neuk nahi ditudan gauzak egitea gustatuko litzaidake. Oraintxe ere nahi ditudan lanak egiten ditut, bereziak, normalean egiten ez direnak; baina orduan neure kasa egingo ditut".



KIROL TALDE

k i r o l t a l d e

Mutrikun kirol talde ezberdinak daude. Eta bertako arduradunekin hitz egin eta gero honako datu hauek bildu ahal izan ditut. Futbolari buruz Eugenio Sanabriarekin hitz egin dut, Txirrindularitzari buruz Benito Romerorekin, Eskubaloiari buruz Lupe Teijeirarekin, Arraun Taldeaz eta Burumendi Mendi Elkarteari buruz "Mote"rekin eta Xakeaz Juan Leonekin.



• MUTRIKU F.T.:

Mutrikuko jendeak parte hartzen duela ikusten da. Bost futbol talde daude bertan: Mutriku, Burumendi, Mutrikuko Nesken taldea, kadeteak eta infantilak.
Iazko denboraldian, Mutriku "regionalera" jaitsi zen, baina beste guztiak oso ondo ibili ziren. Burumendi kategoriaz igo zen eta neskak bigarren mailan geratu ziren. Kadeteak taula erdi aldean geratu ziren eta infantilek ere paper on izan zuten ligan.
Aurtengo denboraldiari dagokionez, oso ondo dabiltza talde guztiak eta Mutriku lehena geratzeko itxaropentsu agertzen da Sanabria, futbol taldeko lehendakaria.

• ATXUKALE TXIRRINDU TALDEA:

Nahiz eta lau pertsona bakarrik aritu, oso ongi moldatu ziren iazko denboraldian. Infantiletan hiru mutil aritu ziren: Jon Lazkano, Beñat Urain eta Eritz Egaña. Bi karrera irabazi zituzten eta orokorrean, lehenengo bosten artean aritu ziren. Kadete mailan, Igor Romero aritu zen eta hiru karrera irabazteaz gain, Espainia mailako karreran parte hartu zuen Logroñon.
Aurten, infantilak zirenak kadete izatera pasatuko dira eta kadete zena jubenil. Denboraldia martxoan hasiko da eta Benito Romerori jende berriak parte hartzeko aukerari buruz galdetzerakoan zera dio, *"kirol eskolan parte hartzen duten gazteak apuntatuko dira gehienez"*.





• JAUJA ESKUBALOI TALDEA:

Ezin esan gauzak ondo doazenik kirol honetan. Iaz ez zen talderik egon, jendea falta zelako, eta aurten ere hamar neska bakarrik daude eta ez da nahikoa taldea ateratzeko. Gainera, orain berandu da jendea apuntatzeko, egutegia eginda baitago.
"Ikastolan daudenean, parte hartzen dute kirolean, baina Institutura heltzean, ez dakit nik zer gertatzen den, kirola alde batera uzten dutela..." dio Lupek.

AK MARTXAN

a k m a r t x a n

• ARRAUN TALDEA:

Hau ere ez doa oso ongi. Iaz, ez zen mutilen talderik egon, soilik neskena. Eta hauek ez ziren gaizki aritu, azken izatetik hirugarren izatera pasa ziren eta Euskadiko txapelketarako klasifikatzeko gertu ibili ziren, azkenean lortu ez bazuten ere. Eta mutilei dagokienez, bertako talderik ez bazegoen ere, bi senior Ondarrun aritu ziren. Aurten, *"oraindik batzarra egiteko dago, baina jendea behar da eta deialdia egiterakoan jendeak parte hartzea eskertzekoa litzateke"* dio Motek.



• BURUMENDI MENDI TALDEA:

Iaz, hogeitabost pertsona inguru ibili ziren baina ez soilik mutrikuarrak, ondarrutarrak ere bai *"ez baitzegoen mutrikuar nahikoa apuntatua"*. Aurtengo denboraldiari dagokionez, lehenengo irteera urriaren hogeian izango da . Eta urtean zehar hainbat irteera daude antolatuta, baina garrantzitsuenak, Santotomasetako txistorrada (02-12-22, Berritxun) "Txitxiburduntzi ihauteriak" (03-03-02, Mutrikun) eta argazki lehiaketaren finala izango dira (03-05-18, Mutrikun). Argazki lehiaketan parte hartzeko, gutxienez lau ibilaldi egin beharko dira eta sei argazki onartuko dira pertsonako.





• TXATURANGA XAKE TALDEA:

Aurtengoan, aurreko urteetako jardunbideari segida emanaz, umeengan xakearekiko zaletasunaren suspertze lanetan jardunteko asmoa dugu, eskola-kirola programaren baitan. Helduen bi taldeekin Gipuzkoako 1. mailan eta 2. mailan jokatuko da liga, iaz 3. mailatik igo ondoren.

Edurne Burgaña

Anaiarte biltokiak 11 urte

Hamaika urte, hamaika kontu eta hamaika ilusio biltzen dira Anaiarte Biltokiaren inguruan.



1991ko irailaren 15ean ireki zituen bere ateak Anaiarte Biltokiak (egun, Gaztetxe ezizenez ezagunagoa denak). Inguruko herrietan bazela antzekorik eta buru-belarri sartu zen Udaletxea ekimen honetan. Diru bat Gizartegintza sailetik lortu ondoren, bestea Udaletxearen kontura joango zen. Lehenengo urratsak eman ondoren Kalbaixo Txiki egunean egingo zen errealitate ordurarteko ametsa.

Guztia kudeatzeko batzorde bat osatu behar eta hango partaide izango ziren : Imanol Arrasate, lehendakari gisa, Simon Urreisti, lehendakariorde eta Jesus Barrenetxea diruzain. Batzordekide hauetaz gain, inguruan izango zituzten lanerako prest, Alejandro Mendizabal eta Juan Larreina (udaletxetik) beste batzuren artean.

Anaiarte Biltokiak herriko jubilatu eta pentsionista guztientzat zabaldu zituen ateak (jubilatu horien senar edo emazteek eta alargunek ere badute Biltokiko kide izateko aukerarik). Aipatu data horietan 500 bat kidez osatua zegoen, egun 610 kide ditu.

Anaiartek helburu bikoitza izan zuen eta du. Alde batetik, herriko jubilatu-pentsionista eta alargunen bilgune izatea eta bestetik, gehiengoa asetuko duen kultur ekintzak antolatzea. Honetarako abaniko zabala eskeintzen dute: hitzaldiak, bidaiak, korua... Hitzaldien sortan osasunaren ingurukoak izaten dira. Bidaiek berriz badute kultur kutsua: Orreaga, Lapurdi, Santander... gure inguruko kultura ezagutzeaz soilik ez dira konformatzen, ez noski. Udaberri eta neguan kina jokaldiak antolatzen dituzte arratsaldez. Jokua gustuko ez eta irakurri nahi duenak paregabeko liburutegia aurkituko du Biltokian, tximiniaren epelean lasai irakurtzeko. Kantuzaleak ere baditugu elkartekoak eta 1998an korua sortu zuten, ordutik hona hamaika emanaldi goxo eskaini dizkigute. Hau gutxi balitz eta ohitura zaharrak berpiztu nahian, kalbaixo bezperan danborradan ateratzen dira, azken hiru urteetan ez dute hutsik egin.

Egungo zuzendaritza batzordea (Germán Collazo, lehendakaria, Luis Mª Rodriguez, lehendakariordea, Jose Mª Agirrezabalaga, diruzaina eta Antonio Arrieta, idazkaria) prest dago kideen proposamen, ideia berriak jasotzeko, beraz, animo eta aurrera.

Jubilatuak eta pentsionistak kulturaren inguruan murgiltzeko aukera aproposa dute Elkartean.







"OKELAR"
BERTSO PAPER SARIKETA (2002)

MAILAK eta LANAK

* Gazteak (<16 urte): Gutxienez 3 bertso edo 6 kopla
* Helduak (>17 urte): Gutxienez 6 bertso.

Bertsoen neurria, doinua eta gaia librea izango da.

SARIAK

* Gazteak: 1. saria: Txapela + 60 €+ oparia.
  2. saria: 30 € + oparia.

Saritu gabeko lehen mutrikuarra: 20 € + oparia.

* Helduak: 1. saria: Txapela + 500 €.
  2. saria: 250 €.
  3. saria: 125 €.

Saritu gabeko lehen mutrikuarra: 100 €.

Bertso sorta batek ez du sari bat baino gehiago jasoko.

Epaimahaiak hala iritziz gero, sariren bat eman gabe laga daiteke.

BALDINTZAK

- Bertsoak jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta inon saritu gabeak izango dira.
- Lanak izenordez sinatuko dira.
- Bertsoekin batera izenordea agirian duen gutunazal baten barruan egilearen izenorde, izen, helbide, adina eta telefonoa bidaliko dira.
- Bertso bakoitzari bere ordena zenbakia jarriko zaio.
- Bertso sorta bakoitzaren doinua jartzea komeni da.
- Posta elektronikoz bidali nahi duenak bi artxibo bidaliko ditu WORD formatoan. Artxibo batean bertso sorta bera eta ezizena idatziko ditu eta bestean bere datu pertsonalak: izenorde, izen, helbide, adina eta telefonoa.

Lanak helbide honetara bidaliko dira **azaroaren 5erako**:

OKELAR bertso paper sariketa
Mutrikuko Bertso Eskola
Ikastola zaharra z/g
20830 Mutriku (Guipúzcoa)
EUSKAL HERRIA
Posta elektronikoa: xuranga@leartik.com

Mutrikuko Bertso Eskolak **Santo Tomas ferian** banatuko ditu sariak.

MUTRIKUKO ARTE TAILERRAK

Joan zen urtean izan zuen arrakasta ikusirik, aurten indarberrituta dator herriari bere esku dagoen guztia eskeintzera.

Joan zen urtera arte, hamalau urtetik gorako gazteek parte hartzen bazuten ere, joan zen ikasturtean fenomeno berri batekin aurkitu ginen: jubilatuak. Oso giro majoa eta alaia sotu zen gazteen broma eta helduen pikardiarekin, bakoitzak bere artelana egin alde.

Umeen mundura ere heldu ginen, aurreko urteetako jardunbideari jarraituta.

Aurtengo ikasturtearen aurrean etxekoandreekin gogoratu gara. Emakume asko daude, haurrak direla, etxeko lanak direla eta abar ezin dutenak 7retatik 8.30etara eskolara etorri.

Horregatik, tapiz artistikoen kurtsilo bat antolatu nahian gabiltza, bazkalondoetan edo egokien etortzen zaien orduetan.

IKASI ALDE, ONDO PASATU ANIMA ZAITEZ !!!!

mutrikuko arte tailerrak

Eguneroko gauza txikietan ere euskaraz jokatu

Zoritxarrez, eguneroko bizitza osoa euskaraz burutu nahi duenak hamaika zailtasun topatuko du bere asmoa betetzeko. Inguratzen gaituen mundu erdaldunaren indarraren aurrean, gure indarrak txiki dira baina, eguneroko gauza txikietan jarrerak eta ohiturak aldatuta, aurrera egin eta gure helburua hurbilago izan dezakegu. Jarraian, gauza txiki horietako batzuk azalduko dira, askotan horiek euskaraz egin ditzakegula ahaztu egiten baitzaigu.



Enpresetatik jasotzen ditugun idatzizko mezuak gaztelera hutsez edo onenean bi hizkuntzatan agertzea gauza normala da. Hala ere, oso erraza izango zaigu mezu horiek enpresa batzuetatik behintzat euskaraz jasotzea, hori bada gure nahia. Hona zer egin behar den:

TELEFONICA: Telefonicak bi hilero bidaltzen digun faktura euskaraz jaso nahi badugu, 1004 zenbakira deitu besterik ez dugu egin behar eta, gure nahia agertuta, berehalakoan bideratuko digute gure eskaria.

IBERDROLA: Bidali diguten azken faktura aurrean dugula, 901202020 telefonora deitu, kontratuaren erreferentzia eman eta berehala egingo digute aldaketa. Aurrerantzean, faktura eta Iberdrolaren edozein komunikazio euskaraz jasoko dugu.

EUSKALTEL: Oraindik Euskaltelen faktura euskaraz jasotzen ez baduzu, deitu 015 telefonora eta hantxe adieraziko dizkizute jarraitu beharreko pausuak, ez aurrekoak bezain errazak, baina egin daitezkeenak.

KUTXA eta EUSKADIKO KUTXA: Beharbada, dagoeneko erakunde bi hauetako komunikazio guztiak euskaraz jasoko ditugu. Hala ez bada, bulegotik bueltatxo bat eman eta kutxarekiko edota Euskadiko kutxarekiko harremanak euskaraz izan nahi ditugula agertzea besterik ez dago. Hortik aurrera, euskaraz jasoko ditugu hango komunikazio guztiak.

Horiek etxean jasotzen ditugun komunikazioen ingurukoak. Kalera irten eta aldean dirurik ez dugunean, zer egiten dugu? Dirua ateratzera joan. Horrelakoetan erabiltzen dugun txartela, zein hizkuntzatan erabiltzen dugu? Oraindik ere, inoiz erreparatu ez diogulako edo erosoagoa dela uste dugulako, gazteleraz badarabilgu, erraz-erraza izango zaigu euskaraz erabiltzeko moduan ipintzea. Pantailan "cambiar idioma" aukera egin eta euskara aukeratu. Hain sinplea! Hala ere, zalantzaren bat badugu, gure bulegora joan eta laguntza eskatzea besterik ez dugu.

Horiek dira gure eguneroko bizitzan euskaraz bizitzearen aldeko aukera pertsonal sinple batzuk. Gehiago ere badaude, jakina, baina orrian tokirik ez. Hurrengo batean jarraituko dugu. Euskaldun bagara, bizi gaitezen euskaraz!

BAI TXO! euskara elkartia

PANADERIA POTERO OBINDEGIA
GREGORIO AZBUE
DOMICILIO: TELF. 604317
TIENDA: TELF. 603643
PANADERIA:TELF- 604512

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
943 60 35 44

urtxintxa
ASTIALDIKO ESKOLAK



INTXAURRETAN

Udazkena iritsi zaigu eta jolas txoko honetara, urte sasoi honetan aurki ditzakegun "jostailu" batzuk ekarri ditugu. Olatz, Artzainerreka, Arno edo inguruko paraje batera hurbilduko gara eta bidean intxaurrak, urrak, gaztainak eta ezkurrak jasoko ditugu. Baina gaurkoz ez ditugu fruitu hauek jango, jolasteko erabiliko ditugu. Segi irakurtzen hilabete honetako orria eta ondo pasa!

INFORMAZIO SOZIO KULTURALA

Intxaur jokoak oso zaharrak dira. Erromatarren artean intxaurrak haurtzaroaren sinboloa ziren (haurtzarotik heldutasunera pasatzeak "*nueces relinquere*" izena zuen, hau da, haurtzarotik ateratzea).

Intxaurrekin egiten ziren jokoak gaur egungo kanika jokoen "arbasoak" direla esan daiteke. Beirazko kanikak komertzializatu aurretik intxaurrak eta antzeko fruituak erabiltzen ziren jolas ezberdin asko egiteko. Orokorrean joko hauek bi motatakoak izaten ziren: zulo edo borobil batean –gurean, ***txolota***– intxaurrak sartzea eta txolota, borobil edo margotutako beste irudi batetik intxaurrak kolpatuz ateratzea. Jolas hauek pixkanaka arauak zailtzen joan ziren gaur egungo kaniken jokoen arauetara iritsi arte. Hemen aipatu ditugun bi jolasak beste edozein fruiturekin egin daitezke, baita zenbait frutaren hezurrekin ere.

GARAPENA

1. intxaurreta

Jokalari bakoitzak intxaur batzuk edukiko ditu. Jolasarekin hasi aurretik botatzen lehena nor izango den aukeratu behar da. Horretarako, lurrean marra bat margotu behar da eta jokalari guztiek pauso batzuetara dagoen beste marratik intxaur bana ahalik eta gertuen uzten saiatuko dira, hori bai, marratik pasa gabe. Jolas honi "puntutan" aritzea edo jolastea deitzen zaio. Gertuen uzten duena, Intxaurreta jolasean botatzen lehena izango da.

Lurrean bi marra margotuko dira batetik bestera lau bat metro egongo direlarik. Marra baten gainean jokalari bakoitzak intxaur bana jarriko du (edo, honela adostuz gero intxaur bat baino gehiago).

Intxaur guztien erdian beste fruitu txikiago bat jarri beharko da. Fruitu hau urra, ezkurra, poxpolina edo intxaur txiki bat izan daiteke. Txikiago den honi "kiskine" deitzen zaio.

Intxaurrak eta kiskine marraren gainean kokatuta daudenean, jokalari guztiak beste marraren atzean jarriko dira eskuan intxaur bana dutela.

Helburua eskuan duten intxaurrarekin marraren gainean dauden intxaurrak kolpatzea eta marratik ateratzea da. Marrako intxaurrak kolpatuz gero marratik ateratzen badira, jo dituenak irabaziko ditu intxaur horiek. Kiskine marratik ateratzea lortzen duenak marran dauden intxaur guztiak bereganatuko ditu.

INSTITUTO OPTICO MUTRIKU
Erdiko kale 21 - Telf.: (943) 60 31 54
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

SANTA LUCIA
ASEGUROAK
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA
ERDIKO KALE z/g Tel. 946351352-657729071

zorion agurrak



KANARIO
Hilan 11n hamarreko pillua jaso dezuzenez, inbitau nahi dezunian muslagun danai!



HAIZEA
Gure lurrikara txikiari milloi bat muxu eta ondo pasatu zure seigarren urtebetetzea. Aita, Ama eta Eritz.



AGURTZANE
Urriaren 24an kafia zure kontura.



AITOR AGIRRE
Zorionak mutil haundi urriaren 15ean bederatzi urte bete dituzu eta! Zure lehengusu-lehengusinek bihotzez.



RAFA
Urriaren 23an 47 urte bete ditu Rafak. Zorionak! Urte askuan segi orain arteko umoriakin, kanta ta dantza!



BEGOÑA
Eneko, Leire eta Jonen partez zorionik haundixenak Amamintzako, asko maitxe zaitxugulako. Matxo handi-handi-handi bat, ez, hiru!



IDOIA
Zorionak amatxo, zure eguna izan zalako eta hogeta matxo asko, merezi ditxuzu ta, horiek eta beste asko ta asko ta asko…



ANDER YURRITA
Santu Guztien egunean 13 urte beteko dituzunez, zorionak eta ondo-ondo pasa. Aurten urrutitik ailegatuko zaizu erregaluren bat!



IRAIA
Urriaren 4an 13 urte bete ditu Iraiak, gure etxeko izarrak. Zorionak gurasoen partez eta asko gozatu zure opariekin



HIRUNE
Aupa neskatxo! Urriaren 2an 10 urte egin zenituenez ZORIONAK etxeko mutrikuar eta Bergarakuen partez. Muxu handi bat.



ANE ELEZGARAI MARTINEZ
Zorionak zure lehenengo urte betetzean eta musu haundi bat gurasoen aldetik.



ATHARRATZE
Aupa ATHARRATZE TRA-KA-TA!! Nahi badezu eta ez badezu, 22 tako gainian dakazu. Zorionak bihotzez. II-JA-E-H



MADDALEN
Familiako danon partez zorionak. Urriaren 6an, zure urtebetetzean, ondo pasatu zenuen eta horrelaxe segi.



KARMELE
Prest eduki belarrixak Urriaren 26an. ZORIONAK!!!.



JOSEBA AGIRRE
Zorionak bihotz-bihotzez Leizarrengo aitona Josebari urriaren 27an. Mahaikada ederra batuko da domeka horretan!



AMPARO
Ez zara libratuko erronda bat pagatzetik Urriaren 28an.



MAITE
Urriaren 23an zure irriparrak gozatuko al gaitu?



AITZIBER
Azarua ailatziar degula, presta zaitxez lagun danak bihar bezela gonbidatzea! Zorionak eta gogoratu lagunak zain dakazuzela.

Letra zopa

T	A	O	D	N	O	M	L	A	P	N	L
X	A	L	M	U	S	O	P	A	G	A	O
L	I	Z	A	R	R	A	A	L	S	E	S
I	U	K	T	S	P	A	Z	I	R	T	H
G	A	Z	T	A	I	N	O	N	D	O	A
N	P	A	G	H	L	I	A	K	L	A	R
T	R	O	Z	I	D	E	S	D	N	E	I
E	A	Z	E	R	I	H	T	I	N	Z	T
K	D	P	I	N	U	A	M	R	O	M	Z
A	R	I	O	K	A	L	A	K	A	M	A

LUMA

Topa itzazu letra zopa honetan zortzi zuhaitzen izenak. Hitzak ezker-eskuin, goitik behera eta diagonalean azalduko zaizkizu.

soluzioak: Gizaiondoa, Arriatza, Pagoa, Haritza, Pahondoa, Pinua, Lizarra, Makala



Perratzailianeko langiliak (1956),

Ezker-eskuin eta behetik-gora:

Felipe Campos (†), *Luis Mari "Xaxtre"*, *Paco "Bizkai"* (†), *Miguel Tobar*, *Pedro "Bizkai"*, *Xixario "Erronda"*, *Joxeba Lete*, *Felix "Alkolea"* (†), *Iñaki "Morokil"* (†), *Jaxinto Xabala* (†), *Maurixio* (†), *Antonio "Txikitxo"* (†), *Agustin "Mixkia"* (†), *Jose Maria Lekube "Barrandero"*, *Norberto Uranga* (†), *Juan Carlos "Moises-enekua"*, *Angel Txurruka*, *Moises Txurruka "Txapas"* (†), *Anizeto "Perras"*, *Pedro "Apallu"* (†) *eta Jose Mari "Ongitzaile"* (†).



Mendiko batzarra amaituta

Ezker-eskuin eta goitik-behera:

Ramon Rubio, Claudio, Narciso "Goixerri", Xabin Odriozola, Jose Galparsoro, Ricardo Arrieta, Agustin "Goixerri", Ciriaco Andonegi, Txilibristo eta Angel Galparsoro.

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
eroski
Jose M.ª Altzibar Etorbidea
Tel. 943 60 31 01
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

ANDONEGI
udaberriko punta-puntako moda
JANTZIAK

urria azaroa

Kalaputxi, 11. zkia

URRIAK 25, baixakua:
Mendi Taldeak antolatuta **DIAPORAMA** saioa egingo da Zabiel Kultur Etxean, arratsaldeko 7,30etan. Gaia: **HIRU HANDIAK.** Egilea: *Felipe Uriarte*.



AZAROAK 3, domekia:
Burumendi M.T.k antolatuta, **LIZARRUSTI-LAREO IBILALDIA**.

AZAROAK 4tik aurrera:
ARTE TAILERRA martxan hasiko da, matrikula zabalik dago.

AZAROAK 17, domekia:
Burumendi M.T.k antolatuta umeentzako **IBILALDIA ONDARRU** ingurutik.

AZAROAK 17, domekia:
OROZKO-ALTUBE (Lumentza) mendi-irteera Burumendi mendi taldeak antolatuta.

AZAROAK 18tik ABENDUAREN 8ra arte
***Luis Díez San Emeterioren* ARGAZKI ERAKUSKETA**.

Gaia: PORTUKO BIZITZA (potinak, itsasontziak eta arrantzaleak) Tokia: Zabiel kultur etxea

GABA BELTZA 2002 EGITARAUA:

URRIAK 31, eguena:
gaueko 22:30etan **KONTZERTUA** gaztetxean MUGAk antolatuta

AZAROAK 1, baixakua:
- arratsaldean **UMEENTZAT TAILERRAK**, ondoren **UMEEN KALEJIRA**.
- Iluntzeko 20:00etan **"ROMPE CANDELA"** Kale animazioa.
- Gaueko 21:30etan **BERTSO AFARIA** gaztetxean MUGAk antolatuta.

AZAROAK 2, zapatua:
- arratsaldean **GAZTAIN ERREAK** Beheko plazan MUGAk antolatuta.
- Iluntzean **KALE ANIMAZIOA**.
- Gauean **DANTZALDIA** Beheko plazan.

BARNE DISEINUA
Inter Studio
Olatz Arregi
PROIEKTUAK
- DENDAK
- ETXEBIZITZAK
- ENPRESAK
PLANUAK ERAKUSLEIHOAK
Portu Kale 11, B
20830 MUTRIKU
Tel.: 943603173 / 656770398
E-mail: interstudi @ euskalnet.net

AZAROAK 7tik 17ra: ANTZERKIAZ BLAI 2002 EGITARAUA:

Eguna	Ordua	Tokia	Lana
azaroak 7	18:30	Zabiel	***"Ai ene, Ai ama, a ze beldurra!"*** Zurriolako ikastolako antzerki taldea
azaroak 8	18:00	Zabiel	Umeentzako ikuskizuna ***Kiki, Koko eta Flash*** pailazoen eskutik
azaroak 8	23:00	Kafe antzerkia	***"Horrelakoa da..."*** eta ***"Zer nahi duzue?"*** Goizeko Izarra Antzerki taldea
azaroak 9	22:30	Zabiel	***"Shakespeare osoa edo ia"*** Zurriolako antzerki eskola
azaroak 10	19:30	Zabiel	***"E-15 pabilioia"*** Antzeko parezido antzerki taldea
azaroak 15	23:00	Kafe antzerkia	***"Non dago martxa?"*** eta ***"Zer nahi duzue?"*** Goizeko Izarra Antzerki taldea
azaroak 16	22:30	Zabiel	***"Ai Martin!"*** Iraulio Panttalone Band
azaroak 17	19:30	Zabiel	***"Bakarrik nago"*** eta ***"Neskamearen marmarrak"*** Goizeko Izarra antzerki taldea

AZAROAREN 9, 10, 16 ETA 17AN ZABIELEN IZANGO DIREN EMANALDIETARAKO BONOAK SALGAI 6 EUROTAN MILA FRUITATEGIAN



nuclertec, s.a.

GAS
INSTALAZIOAK

KALEFAKZIOA

NaturGas -ek

Bezeroaren arretarako eskualdeko
BULEGO BERRIA ZABALDU DU

URKIZU 11, BEHEA — 20600 EIBAR Tel. 943 20 89 96 — Tel. / Faxa. 943 20 67 87

BILBO (Tel. 94 475 73 71) — IRUN (Tel. 943 63 38 75)

argazki lanak
erretoke digitala
diseinu grafikoa
fotokopiak
zuribeltzean
koloretan

IÑIGOBELEN
Konde 3 - tfnoa. 943603701

euskal preso eta iheslariak etxera

PINTURA. DIBUJO. KERAMIKA.TAILA.TAPIZAK. KALE EKINTZAK

Manu Abad
B.Arizmendi
Xiri Andonegi
J.M.Juaristi
J.R.Arizmendi
Elena Altuna
Tailerreko partaideek

ARTE TAILERRAK



MATRIKULATZEKO EPEA: URRIAK 31–KURTSO HASIERA, AZAROAK 11
URTE GUZTIRAKO 18 EURO - KURTSILO BATERAKO 12 EURO

MUTRIKUKO
UDALAREN DIRU LAGUNTZAREKIN